



DANI BLANCO

**Amaia
Lasa
Alegria**



IDAZLEA

Nor da Christine Lagarde?

SISTEMA kapitalistaren barruan bi bide desberdin sortu ziren XX. gizaldian: 1930. urtean John Maynard Keynes ingeles ekonomialariaren aburuz, nazio bakoitzeko estatuek jokabide eraginkorra izan behar zuten beren herrietako ekonomian, lurralde bakoitzeko gobernuak beren merkatuei legeak eta arauak ezarri behar zizkiela defendatzen zuten. Hauek, estatuek alegia, beren nazioko ekonomiaren ikuskatzaile izan behar zutelako aldarrikatzen zuten Keynesek.

Nazioarteko Diru Funtsa (NDF) munduko bigarren gerran garaile izan ziren nazioen babespean sortu zen, 1944. urtean, ideologia liberala indarrean zegoenean.

NDF ikuskatze erakundea legez jaio zen Amerikako Estatu Batuetan (AEB). Bere helburu garrantzitsuenetako bat nazioarteko diru kooperazioa sustatzea izan zen diru aldatze egonkor baten bitartez, horien arteko komertzioa indartu eta sustatu zedin, baita ordainketa balantzan arazoak zituzten herri partaideei laguntzarren.

Christine Lagardek hainbat herriren industria suntsitzeko, langabezia sakontzeko, emakumeena bereziki, soldatak murrizteko, emakumeenak batez ere, lan baldintzarik okerrenak inposatzeko, ondare publikoak pribatizatzeke, eta diru publikoa esku pribatuetara pasatzeko erabili du bere adimen bikaina

Erakuntza hau nahiko ondo ibili zen, munduko ekonomia berrastea lortu baitzuen. Hala ere, 1970. urtean, Milton Friedman AEBetako ekonomialariak beste ideologia ekonomiko bat proposatu zuen sistema kapitalistaren barruan, neoliberalismo izenarekin ezagutzen eta sufritzen duguna.

Ekonomialari horrek planetaren ekonomia korporazio handien eskuetan egon behar zuela zioen. Estatuak ez zuten ikuskatzaile bezala jokatu behar, kapital

handien legez, araupean bakarrik mugituko zen mundu osoko merkatua. Gaur egun multinazionalak planetaren edozein lurraldetan beren etekinak bakarrik kontuan izanda jokatzen dute. NDF instituzioak bere hastapenak alde batera utziz neoliberalismoaren ildotik jo du.

Andre boteretsuak ideologia ekonomiko horren defendatzaile sutsuak izaten dira, horietako bat Christine Lagarde da, 2011ko maiatzaz gero Nazioarteko Diru Funtsaren lehendakari gerentea. Forbes aldizkari ospetsuaren iritzi, munduko hamazazpigarren andrerik boteretsuena da. Christine Lallouette Parisen sortu zen duela 57 urte, gaur egun Lagarde senar ohiaren abizenarekin ezagutua. Bere herrian bigarren hezkuntzako ikasketak bukatu ondoren, AEBetara joan zen ikasten jarraitzera beka bati esker. Nanterreko unibertsitatean burutu zituen zuzenbide ikasketak. Lanerako lehen pausoak AEBetan eman zituen hala ere, herri horretako Kapitolioan lan egin zuen kongresista baten laguntzaile bezala.

UMP frantziar alderdi politikoak zuzendutako zenbait gobernutan ministro izan zen; Sarkozyren garaian finantza ministroa. Christine Lagarde, Angela Merkel edo zendu berria den Margaret Thatcher bezala, Milton Friedmanen jarraitzaile sutsua da.

Lagardek hainbat herriren industria suntsitzeko, langabezia sakontzeko, emakumeena bereziki, soldatak murrizteko, emakumeenak batez ere, lan baldintzarik okerrenak inposatzeko, ondare publikoak pribatizatzeke, eta diru publikoa esku pribatuetara pasatzeko erabili du bere adimen bikaina. Ez da nahikoa emakumea izan eta boterea hartzea, ez badituzu sustarritik egoera berriak sortzen. Lagarde andrea sozietate aita-eragile eta patriarkal honen zutabe bat besterik ez da.

2013ko maiatzean Christine Lagardek frantziar justiziaren aurrean deklaratu behar du finantza ministro zenean Bernard Tapie enpresariari 403 milioi euroko kalte ordain osagarria diru publiko-arekin ordaintzeagatik. ■

